



6.- Jordaniako Anai Musulmanek «Gazaren garaipena» ospatu zuten hilaren 8an.
Khalil MAZRAAWI | AFP

7.- Israelen aurkako mezuak, Islamabad Pakistango hiriburuko manifestazioan.
Farooq NAEEM | AFP

8.- Milaka marokoar elkartu ziren abuztuaren 3an Casablancako manifestazioan.
Fadel SENNA | AFP

9.- Bahreingo manifestari gazte bat, Gazarentzat askatasuna eskatzen.
Mohammed AL-SHAikh | AFP

10.- Palestinako bandera ugari eraman zituzten Hegoafrikako Lurmutur Hiriko manifestariak.
Rodger BOSCH | AFP

11.- Boliviako manifestariak, AEBek La Paz hiriburuan duten enbaxadaren aurrean.
Aizar RALDES | AFP

12.- Palestinako umeen sufrimendua gogoan, Caracaseko manifestazioko irudian.
Juan BARRETO | AFP

13.- Gazan ohikoak bihurtu diren umeen hiletak antzetzu zituzten Santiago Txileko hiriburuan.
Martin BERNETTI | AFP

amaiera emateko eskatu dute eskutitz batean.

Europari dagokionez, Londresko mobilizazio erraldoia (GAUR8 honen azaleko irudia) nabarmendu behar da. Manifestariak Cameronen Gobernuari Tel Avivekin dituen harremanak apurtzeko exijitzen diote, batez ere arma gehiago ez saltzeko, sarraskigilearen konplize ez izateko. Stop the War koalizioak diru bilketa egin zuen Gazako herri-tarrei laguntzeko eta ordu batzuetan sei milioi euro inguru bildu zituzten.

Parisen eta frantses Estatuko makina bat hiritan, Berlinen, Hanburgon eta Madrilan ere egin ziren palestinarren aldeko mobilizazioak. Baita Euskal Herrian bertan ere.

Bolivian bezala, Argentinan, Venezuelan eta Txilen ere sarraskiaren aurkako protestak egin dituzte azken asteotan.

Eta AEBetan, Etxe Zurira bertara iritsi ziren mobilizazioak. Bertan ziren «Israeliek bere burua defenditzeko eskubidea» duela errepikatzen duten manifestariak ere, Estatu sionistaren banderak hartuta, baina ez zen istilurik izan. Gauza bera gerta- tu zen Los Angelesen ere.

Parisen, aldiz, palestinarren aldekoen eta aurkakoen arteko borrokak ere izan dira azken as- teotan. Hollanderen Gobernuak Gazaren eta Palestinaren aldeko manifestazioak debekatzea ere erabaki zuen, baina herritar as- kok kalera irtetea erabaki zuten debekuari muzin egin ez.